


...eta

Kittó!

941 zkio.
2015-IX-11



metala



Inñaki

Campos



zainetan



2015-2016 IKASTURTEA
MATRIKULA ZABALIK

Irailaren 25 era arte

Eibarko Udal

Euskaltegia

- Ordutegi eta erritmo malguak
- Tarifa bereziak
- Aurten langabetuek eta ikasleek ere %50eko

PORTALEA - Bista Eder, 10 943 70 09 12 euskaltegia@eibar.eus



GINAREN UNITATEA

ANTONIO MARTINEZ Eibarko Oinaren Unitateko podologo eta arduraduna da. Martxoan jarri zuten abian eta oinaren era guztietako patologiei erantzuten diete, edozein adinetako pazienteetan, ume zein heldu, kirolariak zein oin diabetikoa dutenak. 3D eskanerrarekin egindako barne-zola biomekanikoetan aditua da.

“Oinkada txar batek patologiak eragin ditzake beste artikulazio batzuetan, belaunean adibidez”

– Zeintzuk dira oinaren patologiarik ohikoenak?

Ohikoena oin-zolako faszitisa da, goizean jaikitzerakoan oin-zolan igartzen den mina. Paziente askok oin-zolako kuxinean ere arazoak izaten dituzte, metatarsalgia moduan ezagutzen dena. Ohiko beste patologia batzuk jaurkituek eragindakoak, oinkadarekin lotutako belauneko arazoak, umeen oin valgoak... izaten dira.

– Patologiei dagokienez zein eboluzio antzeman duzue?

Oinkada txarrak eraginda belauneko arazoekin datozen paziente asko ditugu. Oina bakarria moduan ulertzea akatsa da, hanka oso bat dugu gainean eta oinak zeresan handia dauka hankaren dinamika egokian. Oinetakoa ere oinari kaltea eragiten dion beste elementuetako bat da, eta oso garrantzitsua da jakitea une edo kirol bakoitzerako zein oinetako den egokiena.

– Gure oinen zaintzaz arduratzen gara?

Gero eta gehiago. Podologoaren figura ezagutzen dugu eta kontsultara joaten gara. Baina oraindik ere informazio falta nabarmena dago oinen zaintza egokia, prebentzio-protokoloak eta oinetako egokien inguruan. Eibarko Gipuzkoa Poliklinikan marxoaz geroztik gaude; Oinaren Unitatea Eibarko biztanleengana ere gerturatzea erabaki genuen, eta atentzioa eman dit herrian kirolaren inguruan dagoen zaletasun handiak. Kontsultan kirolari ugari hartzen ditugu.

– Zerk kezkatzen gaitu gehien oinen inguruan?

Oinkadaren inguruan kezka gehien agertzen dutenak kirolariak izaten dira. Jakin badakite oinari gehiago exijitzen diotela eta garrantzitsua dela oinak behar bezala funtzionatzea, beren kirol-jarduera geldiarazi dezaketela lesioak edo arazoak ekiditeko. Diabetikoen kasuan, oinen zaintza eta prebentzioa ere oso garrantzitsuak dira, paziente horietan ultzerak irteteko arriskua handiagoa da-eta.

– Zein garrantzi dauka txikitatik oinak zaintzeak?

Oso garrantzitsua da, umetan antzeman daitezkeelako oinetan egon daitezkeen arazoak. 4 urterekin oin valgoak dituzten umeak hartzen ditugu kontsultan. Paziente horiek barne-zola behar izaten dute, ariketez lagunduta, oin-arkua sortzen hasteko eta oina lerrokaturik hazkunde egokia ziurtatzeko. Umeen artean iku-

Oinen zaintza egokiaren inguruan ez dago informazio nahikorik.

ZAPATUAN OINKADAREN AZTERKETA DOAN

Policlinica Gipuzkoako Oinaren Unitateko eta Podoactivako adituak oinkadaren azterketak egingo dituzte zapatuan, irailaren 12an, doan, **Untzagan egongo den stand batean**, goizeko 09:00etatik 14:00etara.



Atentzioa eman dit Eibarren dagoen kirol-zaletasun handiak, kirolari asko hartzen ditut kontsultan.

si ohi dugun beste patologia batzuk orpoko mina, Severren talalgia bezala ezagutzen dena, ezegonkortasuna, oin-puntetan edo oin-puntak barrurantz ibiltzea dira. Zenbat eta lehenago antzeman patologia horiek, orduan eta denbora gehiago izango dugu horiek zuzentzeko.

– Zein zerbitzu eskaintzen dituzue Eibarko Poliklinika Gipuzkoan?

Oinaren Unitatean adin guztietako pazienteak hartzen ditugu. Umeetatik hasita oinetan arazoak dituzten helduak arte. Gure espezialitatea barne-zola biomekanikoak dira eta horiek egiteko 3D Scan Sport Podoactiva erabiltzen dugu. Tresna horrekin moldeak zehaztasun handiarekin atera ditzakegu, pazientearen dinamikaren oso antzekoak diren baldintzak simulatuz. Horrez gainera, kiropodia-zerbitzua ere eskaintzen dugu; tratamendu horrekin azazkalak moztu eta leundu, gogorguneak eta kailuak kendu edo azaleko beste edozein patologia tratatzen dugu.



Policlinica Gipuzkoako Kontsulta Zentroa
Ibarkurutze kalea, 2 -EIBAR-
Telefona: 943 25 61 00

POLICLINICA GIPUZKOA

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

ASTEAN ESANAK

"Emakumeen Viagra da ez-gaixotasun baterako azken soluzioa. Zahartzea, aspertzea, begi-zuloak, burusoiltzea, erditzea, zorientasun-eza, zelulitisa, zakilaren neurriak eragindako antsietatea, haurdunaldia eta bakardadea ez dira gaixotasunak, baina diru pila bat lor daiteke gaixo daudela uste duten pertsona osasuntsuei esker. Gainera emakumezkoen Viagra deitza engainagarria da: Viagraren eragina fisikoa da, eta Addiyirena psikikoa"

(ANA GALARRAGA,
ELHUYAR ZIENTZIAKO KIDEA)

"Letra sexistak dituztela-eta, reggeatoiaren aurka Elgoibarko Udalak abian jarri duen kanpainaren harira, reggeatoi matxista dagoen modura, badago ere feminista dena. Badagoen bezala rock, pop eta hip hop matxista, homofobo eta arrazista, uste duguna baino hedatuago. Agian, garrantzitsuagoa litzateke letra eta jarrera horiek desberdintzen ikasiko duen gizartea eraikitzea. June Fernandezek aspaldi idatzi zuen modura, ezin badut prereatu, ez da nire iraultza"

(MIREN NARBAIZA,
ABESLARIA)

"Emakume atzerritarrek zailtasunak dituzte zerbitzu sozialetan lan egiteko; aldiz, zaintza zerbitzuetan gehiengo dira. Hori diskriminazio kasu argia da: sarritan, erregulazio administratiboagatik, paperik gabeko emakumei ezin diete lan kontraturik egin; eta, beste batzuetan, familien aurreiritziak daude. Enpresa batzuek diotenez, eurengana jotzen duten familiei jarraituz, bertan jaiotako emakumeak lehenago kontratatzen dituzte"

(JULIA NOGUEIRA,
SOZIOLOGOA)

KONTRAKO IZTARRIXA.- Okerreko eztarria, arnasa hartzen deneko zuloa. Gaztelerazko 'trá-quea'. "Kontrako iztarrira joan jago arduu tantanen bat eta itto biharrian dago".

KONTU.- Ipuina, narrazioa. "Denporia juaten jago kontuetan". Kalkulua. "Kontua egitteko orduan izaten ziran kontuak". Agiria, errezihoa. "Medikuarengana kontua pagatzera". Arreta eskatzeko erabiltzen den interjekzioa. "Kontu, anporrak botatzen ditte horrek eta!".

KONTU EUKI.- Kontuz, argi ibili. "Kontu eukizu arlote hori aldendu ez dein kontua egin barik".

KONTUAK EGIN.- Umeei gozo hitzegin. Gaztelerazko, 'hacer mimos'. "Etxera efortzen danian, lenengo zeregiña, umiari kontuak egin".

eskutitzak

- OHARRA -

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zerbakia derrihorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk

onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreo bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA



Azken Gaztezulo hilabetekarian Markel Alberdi Eibarko igerilaria elkarriketatu dute eta, horrez gain, baita azala eman ere.



ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkarte. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 €ibar **TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72. **Astekariaren €-MAILak:** erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus / publizitatea@etakitto.eus **Elkartearen €-MAILak:** elkarte@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus **ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Jose Luis Gorostegi eta Silbia Hernandez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi. **ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDUA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri. **PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIAK:** Iñaki Campos **BANAKETA-ARDUADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.150 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati). **COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679 ("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunik)



**EIBARKO
UDALA**



Gipuzkoa
BERRIA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)**

Barrenako jaixen ediziño barrixa

Ohiko paella eta patata-tortilla lehiaketak eta arratsaldeko mus txapelketiak osatuko dabe Barrenako jaixetarako bi-xarko programia. Azittaingo jaixetako errelebuia oin dala urte batzuk hartu zeben jaixak eguardiko 12.30xetan hasiko dira, paellak prestatzeko biharrekin. Parte hartzen dabenak 10 lagunendako moduko lapikuak erabilli biharko dittue eta preparatzen dittuen paellak 14.00xetarako presentau biharko dittue epaimahai-xaren aurrian. Sarixak, barriz, handik ordu erdira banatuko dira eta, jarraixan, herri-bazkarixa egingo dabe. Gauza bi-

xak, lehiaketia eta bazkarixa Azittaingo gasolindegi parian dagan parkian egingo dira. Arratsaldian, barriz, 17.00etatik aurrera mus-txapelketa azkarrak jokatu-ko dittue parke azpitan daguazen Bodega Vinagre eta Gure Kaiola tabernetan. Eta, amaitzeko, patata-tortilla lehiaketa familiarra (guraso eta seme-alabak osatutako bikotiek) 19.00etan abiatuko da. Handik ordubetera tortillak epaimahai-kueri aurkeztu biharko detsez eta, jarraixan, lehiaketarako prestatutakuak alkarrekin jango dittue, jaixak agurtzeko egingo daben herri-afarimeriendian.



Bazkarixa eta afari-merienda egingo dira Barrenako jaixetan. LEIRE ITURBE



Txaltxa Zelaiko auzixan udala irabazle

Ravi Obras, Transportes y Excavaciones eraikuntza enpresiak 285.360 euroko indemnazaziñua pagau biharko detsa Eibarko udalari, Txaltxa Zelaixan parke barrixa egin eta estaltzeko biharren harira epaitegixetara eruan eben auzixan epailliak udalaren alde egin dau eta. Aittatutako enpresiak parkia estaltzeko biharrek lehiaketa bittartez eskuratu zittuan, baiña biharrek hasi eta amaitzeko ezarritta eguazen epiak

betetzen ez zittuala ikusitta, udalak kontratua bertan behera lagatzia erabagi eban. Biharren atzerapenak eragindako kaltien artian, larrixenetakua Eusko Jaurlaritzak emoten eban 235.756 euroko diru-laguntza eskatzeko aukeria galtzia izan zan eta, horregaittik, udalak auzitegira jo eban, kalte-ordaiñen bat jasotzeko esperantzia zekalako eta, azkenian, denporiak arrazoia emon detsa.

Legarreko jaixetarako prest

Datorren asteburuan ospatuko dira Legarreko jaixak, Arrajolape Kultur Elkartearen eskutik antolatutako programiari jarraituta. Hurrengo barixakuan, hillaren 18xan 19.30xetan txupinazuarekin batera egingo dau eztanda jaixak eta, jarraixan, trikitalarixak eta buruhaundixak lagunduta kalejiran ibilliko dira. Urteroko martxan, illuntzian patata tortilla txapelketia jokatu-ko da eta, horrekin batera, auzoko umiendako herri afarixa eta talogintza taillarra be preparau dittue. Eta gabian "Magia apur

bat" ikuskizuna amaittu eta jarraixan, nahi dabenak jaixarekin segitzeko aukeria eukiko dau jai batzordiaren txosnan muskia ipiñiko dabe eta. Eta hurrengo egunerako egun osorako jarduerak antolatu dittue, tartian Sosola basarrira mendi-ibillaldixa, umiendako pelota partidak, kalejiria, pintxo-triki-poteua, auzokuendako bazkarixa eta erro-merixia. Eta gabian, Xero Xiette taldekuen



Osso taldia izango da Legarren.

erromerixia amaittu eta jarraixan, Pam eta Osso taldiak kontzertua eskinduko dabe.

AMAIA BARBERENA AMILLATEGI I. URTEURRENA

"Zurekin bizitako uneak gurekin geldituko dira betirako gure bihotzetan"

ZURE LAGUNAK



Bixar hasiko dira Bien Aparecida jaixak

Kantabriako Etxekuak, urteroko moduan, Bien Aparecida ama birjifiaren omenezko jaixak ospatuko dittue eta, horretarako, bixar hasiko dan programia preparau dabe, musikia, dantzak eta gastronomixia tartekatzen juango diran hainbat ekitaldirekin. Jai-egitarauari bixar ekingo detse, 15.00xak aldera Untzagan, nahi daben guztiendako antolatu daben paella-janarekin. Arratsaldeko 19.30xetan, barriz, Kaleetan Kantuz abesbatzak eta Eibarko

Trikitalari Gazteak kalejiran urtengo dira eta 21.30xetatik aurrera Kantabriako musika tradizionala izango da jaun eta jabe, Campootik etorriko dan "La Flor y Los Romeros" musika taldiaren emanaldixan.

Programiak datozen asteburu bixetan be segiduko dau: hillaren 19xan Kantabriako



"La Flor y Los Romeros" taldiak bihar gauean joko dau.

Etxeko bazkidiendako tute txapelketia jokatuko da Jardñeta kalia alkartiak daukan egoitzan; hurrengo egunian (20xan) San Andres elizan mezia egin eta gero piskolabisa eukiko dabe Jardñetako lokalian; eta hillaren 26xan, programiari agur esateko, Ipuruako bolatokixan ohiko txapelketak jokatuko dittue.

autuan

EUSKERIA IKASTEKO

Eibarko euskaltegi bixetan eskintzen dittuen ikastaruetarako matrikulaziñua zabalik dago: Portalea eraikiñian daguan Udal Euskaltegixan hillaren 25era arte egongo da izena emoteko aukeria eta AEK euskaltegixan, barriz, hillaren 29ra arte. Eskintza zabala dago kasu bixetan, bai ordutegixari begira baita ikasteko metoduari begira. Langabetu eta ikasliendako dirulaguntzeri esker, matrikuliak kostatzen dabenaren erdixa baiño ez detse kobrauko. Bereziki guraso, langabetu, ostalari eta merkatariendako pentsautako euskalduntze-alfabetatze ikastaruak dagoz.

Txakurtegixa hobetzeko eskaeria

GÉPÉ Eibarko txakurtegixaren gestiño etikuaren aldeko alkarteko kidiak siñadurak jasotzen jardun eben Arrateko jaixetan. Izan be, Debabarrenako herri guztietan dihardue herriarren babes billa. Eibarren daguan txakurtegixa Debabarrenako Mankomunidiak gestionatzen dau oin dala 30 urte inguru eta GÉPÉ alkartiak txakurtegixaren inguruan daguan planteamendua goititik behera aldatzia eskatzen dau: "Txakurtegixa izatetik hilketa bariko protektora bihurtzia eta sakabanatuta egoteko

hornikuntza barrixak ipintzia eskatzen dogu; gaur egun tokirik gabeko 8 kaixoletan bizi dira animalixak. Han hillebetetik gora emoten dabe giltzaperatuta eta, azkenian, nahiz eta osasuntsu egon, sakrifikau egitten dittue". Biharrezkua ikusten dabe gaur egungo txakurtegixa hobetzia eta sasoi barrixetara egokitzia. "Gizartia asko sensibilizatu da zentzu horretan, gero eta jende gehixago ari da animalixak bere etxian jasotzen, baiña erakundiak laguntzen badabe dana askoz be errezagua izango da". Debabarrenian jasotzen ari diran siñadura guztiak batzerakuan, eskualdeko udaletxe guztietan aurkeztuko dittuela aurreratu dabe. Batenbatek internet bittartez siñatu nahi badau, horretarako aukeria be badago www.eibarweb.com/gepe webgunian sartuta.



Maria Apellanizen 100 urtiak ospatzen

Abuztuaren 4an 100 urte bete zittuan Maria Apellaniz Rejanak eta, udalak horrelako urtebetetze berezixak ospatzeko beste batzuetan egitten daben moduan, jaixo zala mende bat betetzen zan egunian bisitan juan jakozen Mariari, zuzenian zoriontzeko eta udalaren izenian oroigarrixa oparitzeko. Egun horretan protagonista zanak pozarren hartu zittuan etxian, aldamenian seme-alabak, loibak eta billobak zittuela. Eta udaletik juandakuak agurtu eta jarraixan, famelixaguztia alkarrekin bazkaltzera juan zan, amamaren 100. urtebetetziak merezi daben moduan ospatzera.


LEO ARTAMENDI ARRILLAGA (2015-VIII-10)



Mendi hegaletan gora oroitzapen den gerora ihesetan joan zara.

ETXEKOAK

Bere aldeko IRTEERA MEZA ospatuko da irailaren 13an (domeka), eguerdiko 12.00etan, San Andres Deunaren elizan.



Musika arloan mundu mailan dauden aldizkari garrantzitsuenentzat, mundu osoko eszenatokietan kontzertuak ematen dituzten talde ezagunenei argazkiak egiten bederatzi urte eman ditu Iñaki Campos eibartarrak: Metal Hammer, Decibel Magazine, Bass Guitar, Bateria Total, This is Rock... horietan eta beste askotan eman dituzte argitara bere argazkiak eta egunotan horietako batzuk Eibarren ikusteko aukera dago, Ez Dok tabernan ikusgai dagoen erakusketan. Bere lanaren bilduma askoz zabalagoa interneten aurkituko duzue, www.shootemallphotography.net webgunean zein sare sozialetan.

IÑAKI CAMPOS (argazkilaria):



“Errealitateak zerikusiri gutxi dauka jendearen ustearekin”

- Noiz eta zelan hasi zinen argazkigintzan?

Musikarekiko nire pasioak eraginda hasi nintzen argazkigintzan murgiltzen. Betidanik izan dut musika munduarekin lotutako argazki, poster eta horrelako irudiekiko zaletasun ikaragarria. Oso umetatik erakarri naute aldizkari eta bestelako argitalpenetan, azalean zein barruko orrialdeetan kaleratu ohi dituzten argazkiak. Hamabi urte bete orduko benetako grina sentitzen nuen eta, horren eraginez edo, hamazazpi urterekin nire fanzinea sortu eta egiten nuen. Kontu horiek benetan gustatzen zitzaizkidalda ikusita, argazkigintza ikastaro oinarri-oinarrizkoa egitera animatu nintzen eta, ikastaroan ikasitako horrekin, kontzertuetan argazkiak egiteko lehen esperientzia izango zena bizitzera joan nintzen AEB-era 2000. urtean, hango jaialdi batean argazkiak ateratzera, sasoi hartan Metal Hammer aldizkariaren bertsio holandarra zenarentzat argazki-erreportajea egitera.

- Eta lehen erreportaje horren ondotik horrelako lanak bata bestearen atzetik etortzen hasi ziren ala?

Egia esateko, lehen horrekin probatu eta gero etenaldia izan nuen, ni analogikoaren aldekoa izan naiz beti eta, digitala toki guztietan sartzen ari zela ikustean, desilusio pixka bat hartu nuen, etsipen



sentimendu modukoa. Ordura arte horrelako beharrak egiten zituzten argazkilaria handi guztiek analogikoarekin ibiltzen ziren eta niretzat digitala erabiltzea ia-ia tranpetan ibiltzearen parekoa zen. Baina hasierako aurreiritzi hori gainditu nuenean, orain dela hamar bat urte berriz ere nire benetako zaletasunari heldu nion, Espainiako Metal Hammer aldizkariarentzat beharrean hasi nintzen eta azken hamarkadan mundu osoan zehar bidaiatzen ibili naiz, 50/60 musika jaialditan kontzertuetako argazkiak egiten.

- Kanpotik ikusita, lana baino gehiago zureak benetako pagotxa dirudi: gustatzen zaizun musika egiten duten talderik ezagunenei argazkiak egiten, kontzertu ikusgarrienetan herrialde batetik bestera bidaiatzen... Baina zuk nola bizi izan duzu esperientzia hori? Dirudien bezain polita da?

Errealitateak zerikusiri gutxi dauka jendeak izan ohi duen irudi ideal horrekin. Orain dela urte asko honetan jardutea orain baino askoz errezagoa zen, iraganean argazkilaria beharrari bestelako balioa ematen zitzaion. Gaur egun gauzak oso bestelakoak dira, argitalpenetako buruek, taldeek, managerrek... denak ahalegintzen dira zuk egindako beharrekin etekina ateratzen, ez dute argazkiengatik ordaindu

nahi... Argazkiak egiten lagatzen dizutela eta, gainera zuri mesedea egiten arituko ziren moduan ibiltzen dira gehienetan. Horrelakoak ikusita mito asko jausi eta hasierako ilusio hori asko moteltzen da, baina azkenean pasioak horiek guztiak gainditzera eta aurrera egitera bultzatzen zaitu.

- Arlo teknikoan, nolako zailtasunak dauzka horrelako kontzertuetan argazkiak egiteak?

Zalantza barik, argazkilaria daukan etsairik handiena argiak dira. Kontzertuak ez dira argazkilariaentzat egiten, publikoarentzat baino, eta horrek ematen digu buruko-min gehien. Gehienetan kontzertua hasi eta lehen hiru abestietan lagatzen digute zuloan sartuta argazkiak egiten, horrek dakarren guztiarekin. Izan ere, taldea oraindik berotzen dabil, guk behar ditugun argiak oraindik amatatuta egoten dira... Argazkiak nondik nora egin pentsatzen hasi orduko handik irten behar duzu. Hala ere, sarritan argazki onenak urrutitik egindakoak izaten dira.

- Ez Doken irailaren amaiera arte ikusgai daukazun erakusketa lehena da zuretzat benetan?

Bai, orain arte ez dut inoiz argazkirik erakutsi, ez dut horretan gehiegi pentsatu eta, egia esateko, nire argazkiak erakusteko toki egokirik ere ez zitzaidan bururatzen. Baina Klub Deportiboko Argazkilaria Taldeko kidea naizenez, eurek animatu naute. Proposamena entzun eta, gustatu zitzaidanez, argazki batzuk ikusgai ipini ditut lehenengoz.



Amaña 110.000 €

Etxebizitza tasatua. 3 logela, egongela-sukaldea eta komuna. Ezinhobea. Balkoiarekin.



Untzaga 185.000 €

Estreinatzeko. 3 logela, jangela-sukaldea, komuna eta bainugela. Armairu enpotratuak.



Wenceslao Orbea 122.000 €

Ezinhobea. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Gas naturala. Balkoi handiak. Oso eguzkitsua.



Bidebarrieta 179.000 €

Kokaleku ezinhobea. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Konpontzeko. Igogailua.



Mutiola 150.000 €

Primerako etxebizitza. 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa.



Txonta 151.000 €

Aukera ezinhobea, trasladoa dela-eta. Bikaina. Igogailua kaleraino. Kalefakzioa.



Urki 186.000 €

Apartekoa. Pisu altua, bista ederrak. Trastero handia. Igogailua eta kalefakzioa.



Zezenbide 235.000 €

Terraza oso handia hegoaldera begira. 3 logela. Kalefakzioa eta igogailua. Prezio negoziagarria.



Jardiñeta 132.000 €

2 logela, sukalde-egongela eta komuna. Igogailua kaleraino. Pisu altua.



Santainés 167.000 €

Bikaina. Pisu altua. Guztia kanpora begira. Igogailua.



Sautxi 156.000 €

2 eta 3 logelako etxebizitzak. Garaje-partzela eta trasteroarekin. Guztiz jantziak.



Amaña 100.000 €

Aukera!!! Bizitzera sartzeko. Eguzkitsua.



Ipuruako dorreak Galdetu

Pisu altuak. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta balkoi handia. Garaje eta trasteroarekin. Bistak futbol zelaira eta Urkora.



San Juan 212.000 €tik

3 eta 4 logelako etxebizitzak. Kalefakzioa eta igogailua.



Urkizuko dorreak 160.000 €tik

3 logelako etxebizitzak, bi komun, egongela eta sukaldea. Garajearekin.



Arrate bide 120.000 €

3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoiarekin. Oso eguzkitsua.



Barrena 90.000 €tik

Pisu altuak. 2 eta 3 logelako etxebizitzak. Igogailua.



Zuloagarren 220.000 €tik

3 eta 4 logelako etxebizitza handiak. Igogailuarekin.



Mekola Galdetu

"Milionarioen etxea". 4 eta 5 logelako etxebizitzak. Garaje eta ganbara handiak.




Miguel de Aginaga 150.000 €

3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Ganbara eta igogailuarekin.



Errebal Galdetu

Oso handia. Bodega eta ganbarekin. Kalefakzioa eta igogailua.



Bidebarrieta Galdetu

Erosoa eta bikaina. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Igogailua kaleraino.



Bidebarrieta 66.000 €

Aukera ezinhobea!!! 108 m². Ganbara handiarekin.



Legarren Gain GARAJEAK Galdetu

Garajeen salmenta eta alokairua (erosteko aukerarekin)



Legarreko dorrea 215.000 €tik

3 logelako etxebizitzak. Bista ederrak. Orientazio desberdinak.

OPORRIK SOLIDARIOENAK FAMILIA GIROAN

Aste honetan ikasleak klaseak hasterekin batera, oporretatik gerra zitekeen arrasto txikiak ere alde egin digu gutariko gehienoi. Hondartzan, mendian... bakoitza ibili den tokian egindako argazkiei noizean behin begiratu azkar bat botako diote batzuek, argazkiren batek ekarritako oroitzapenen bati buruzko zerbait esango dute beste batzuek... baina egun gutxitan horiek guztiak denboran gero eta atzerago lagatzen joango gara eta, eguneroko martxari helitzen joan ahala, gero eta urrutiago ikusiko ditugu, ia erabat desagertzerara ailegatu arte. Baina amaitu berri diren oporren inguruko oroitzapenak oso bestela biziko dituztenak ere badaude. Oporrak modu solidarioan bizitzeko, guk baino baldintza gogorragoak derrigortuta bizi behar dituzten



Elkarte ezberdinen eskutik etorritako jatorri ezberdineko umeei uztailaren 10ean harrera egin zieten Donostiako Udalean.

umeak etxean hartu dituzten familiak udako egunen inguruko oroitzapenak luzaroan bizibizi izango dituzten "pribilegiatuen" talde horretan daude. Eta zer esanik ez uda familia horietako batekin batera igaro duten umeak. Euretako askorentzat, gainera, bere bizitzako oporrak izan dira eta nekez ahaztuko dute euren etxetik kanpora, bigarren familia bihurtu denarekin batera, bizi izandako esperientzia.

Aurreko urteetan bezala, aurtengo udan ere Euskal Herriko etxe askotako atea parez-pare zabaldu dira, elkarte ezberdinen eskutik oporrak harrera familia batekin igarotzera etorritako umei harrera beroa egiteko. Elkartasun programa ezberdinek ematen duten aukeraz baliatuta, Saharako, Errusiako, Bielorrusiako eta Ukrainiako umeak pare bat hilabetez "euskalherriartu" eta euren jaioterrian daukaten

bizimodutik erabat aldentzen den beste bat bizitzeko aukera izan dute. Hori posible eginguten duten elkarteetako batzuk Fronte Polisarioa, Bikarte, Txernobil eta Txernobilaren Lagunak dira eta, horietako ordezkariak eta oporrak gure artean etorritako umei harrera egin zieten Donostiako udalean uztailaren 10ean. Hiriburuan egindako hori, baina, erakunde eta talde ezberdinek egindako harrera-ekitaldiek osatzen duten zerrenda amaigabea bat gehiago besterik ez zen izan. Bakoitzaren herrian, kirol ekitaldietan, familia giroan, umeek gehien maite dituztenen eskutik... umeek etenbarik jasotuzte maitasun-keinuak alde guztietatik, lehenengoak aireportura ailegatu bezain pronto eta etxera bueltatzeko orduan oraindik ere lagun eta familia berrien laztanak jasotzen jarraitzen zuten.

Eibarren aurten lehen aldiz Saharako errefuxiatu kanpamenduetan bizi diren hiru umeri harrera egiteko aukera izan dute beste horrenbeste etxetan, Eibar-Sahara Elkarteari esker: Mariem (9 urte), Hamza (9 urte) eta Bachir (12 urte) ekainaren azken egunetan ailegatu ziren Eibarrera eta, etorri eta egun gutxira, Miguel de los Toyos alkateak harrera egin zien, umeen harrera-familiarekin eta Eibar-Sahara Elkartearen ordezkariarekin batera.

"Oporrak Bakean" izeneko programari eta udalak bidaia ordaintzeko emandako diruari esker, abuztuaren amaiera arte gure herriko hiru familiekin batera ondo baino hobeto ibiltzeko aukera izan dute eta ez dute minutu bakarra alferrik galdu, ez horixe!

Isabel Bolinagaren etxean etorritako neskatila bakarria -Mariem- hartu dute, baina berarentzat programan parte hartzen zuen lehen urtea izan arren, familiak bazuen espe-



Oporrak Bakean
oporrbakean.jimdo.com
oporrbakean@gmail.com
 696 014 786

rientzia aurretik ere, etortzeko aukera izan zuen bitartean bere anaia urte batean baino gehiagotan izan zuten-eta. Hiru umeen artean "beteranoena" Bachir izan da, 12 urteko mutikoarentzat aurtengoa hemengo etxe batean eman duen bosgarren uda izan baita. Oporren zati handi bat Idoia Aranbururen familiarekin batera Galdonako kanpinean "primeran" eman du; eta hirugarren umea, Hamza, Claudia Sanchezek hartu du. Eta honezkerok Tinduferra, etxera bueltan izan arren, hirurek izango dute zer kontatu.



Mariem, Hamza eta Bachir Eibarren egon dira ekainaren amaieratik abuztuaren azken egunetaraino, Eibar-Sahara elkartearen eskutik.

Vladys Txernobilgo mutikoa eibartartu egin da azken bost urteotan

Bost urte dira Vladyslav Eibarrera etorri zela lehen aldiz. Angel Ruiz eta Nerea Alberdi, 1986an Txernobilaren gertatutakoaz eta hango ondorioez arduratuta, mutila etxean hartzera animatu ziren. Biek diotenez, bost urteren ondoren, "12 urte dituen Vladyslav bere bizitzako urtebete bat igaro du gurekin". Bikotea oso pozik dago egindako "inbertsioarekin": "Topikoetatik haratago, asko ematen dizute. Lana ere bai, jakina! Baina jasotzen duzuna ezin daiteke ordaindu".

Gaur egun oso integratuta dago Ivakhiv-en (Txernobilengandik 50 kilometrora arteko perimetroan) jaiotako mutilkoskorra Eibarren. "Urtero etortzen denean Urkizu inguruko bere adinekoek besoak zabalik hartzen dute. Hemen osatu du bere lagunaren kuadrila eta gurekin ere gero eta gutxiago dago" dio Eibarren. "Urtero etortzen denean Urkizu inguruko bere adinekoek besoak zabalik hartzen dute. Hemen osatu du bere lagunaren kuadrila eta gurekin ere gero eta gutxiago dago" dio Eibarren. Gure astekarian Chernobilaren Lagunak-en inguruko berria irakurrita animatu ziren Nerea eta Angel esperientzia hori bizitzera eta "elkar ulertzeko hasierako arazoak" ondo jakin izan diote aurre egiten. Vladyslav-ek ere, hain gazte izanda, hemengo hizkuntzak -"gaztelaraz hobeto moldatzen da euskaraz baino"- bereganatu ditu eta familiakoa bihurtu da, "hangoa, bere benetako familia, ahazten

ez badu ere". Horren harira, Skype erabiltzen du etxekoekin komunikatzeko eta denbora luzez egoten da, gainera, "amarekin batez ere. Oso amazulo izan da beti" dio Nereak.

Eibarren integratzeko ez du inolako arazorik izan Vladyslav-ek: "Mutil irekia da eta Afariketetan ere parte hartu izan du. Eibar FT-ren igoeraz ere gozatu zuen eta bakarra izan zen Ipuruan jokalariek sinatutako kamisetarekin joaten". Azken urtean, gainera, "espíritu libre moduan ibili da, bizitza Urkizu inguruan egitetik Untzagara eraman duena, askotan igerilekura joateko aprobetxatuz".

Urtero San Juan bezperatan hartu dute mutila: "Aurten ekainaren 22an heldu zen eta abuztuaren 26ra arte egon zen gurekin". Gure artean egoten den bi hilabetetan "ondo elikatu dadin eta eguzkia har dezan" ahalegintzen dira hemengo bere familian: "Urtero pisatzen eta neurtzen dugu, bai datorrenean eta baita joaten denean ere". Hori bai, azken al-

Chernobilaren Lagunak GKE
www.chernobilanlagunak.com
chernobilanlagunak@yahoo.com
689 586 277



Askok hazi da Vladys orain dela bost urte Nereak eta Angelek etxean hartu zutenetik. Esperientzia aberasgarria izan da hirukotearentzat.



Goian Txernobiletik Eibarrera etorritako bi mutilak aireportuan. Beste argazkietan, Vladyslav Albentosa, Porrotx eta Errioxako lagunekin igerilekuan.



dian igarri diote mendebaldartu dela: "Aldatu egin da. Lehen urteetan, medikuarengana edo dentistarengana joaten ginenean, oparitutako hortzetako-eskuila gurasoentzat gordetzen zuen, jasotako diru guztia itsulapikora zihoan... Gutxinaka hori aldatzen doa". Azken finean, Eibarren beste mutiko bat bihurtu da. Aurten, gainera, horrela agindu ziotenez, Port Aventura ere izan da. Normalean Errioxara joaten dira udan eta han ere hemengo lagunekin ibiltzen dira: "Familian, gure ilobekin-eta, lehengusu modura hartu dute eta eurretako beste bat da".

Umeak hartzeko animatzen

Angel eta Nerea oso pozik daude esperientziarekin: "Beste bizitza bat ematen dizute

eta, ordutegiak-eta halakoak aldatu behar badituzu ere, beste hutsune batzuk betetzen laguntzen dizute". Eurak Chernobilaren Lagunak taldearekin ekarri dute Vladyslav: "Gipuzkoako talde hau Bizkaian lan egiten duen Chernobilaren Elkartearen bultzatutako talde egongo gara egun". Eibarren Rosa Gonzalezek eta Jorge Garcia osatutako bikoteak beste mutiko bat ekarri du. Angelek, gainera, ondo arrazoitzen du hartutako erabakia: "Askotan zalantzak izaten ditugu gure dirulaguntza behar dutenengana helduko den. Hemen ziurtasuna duzu ailegatzen zaiela eta emaitza zure begien aurrean ikusten duzu".

Unibertsitatera joateko autobus zerbitzu zuzen barik

Bilboko eta Donostiako kanpusetan ikasten duten eibartarrak autobus zerbitzu zuzenik gabe gelditu dira. Izan ere, ikasle unibertsitarioek osatutako Bikain elkarteak zerbitzu hau bertan behera lagatzeko erabakia hartu du. Elkarte honek 20 urtetan jardun du Eibar, Ermua eta Elgoibarko ikasleak Donostia eta Bilboko kanpusetara egunero eramaten eta bueltan ekartzen, baina arrazoi ekonomikoak direla eta, ezin izango dute zerbitzu hau eskaintzen jarraitu.

Mario Fernandez Bikaineko arduradunak azaldu digunez, "azkenengo urteetan ikasleek ez dute gure zerbitzua asko erabili: ikasketa ordutegietan gero eta dibertsifikazio handiagoa dago eta. Gainera, Bizkaibus bezalako enpresak daude: ezin dugu horiekin konpetitu, beraiek Diputazioaren babesa daukate, nahiz eta sarritan ez diren larregi erabiltzen. Eta horretaz gain, Mugi eta Barik txartelek guk eskaini ezin ditugun deskontuak dituzte". Bestalde, kasu askotan ikasleek kotxea konpartitzen dute.

Orain dela urte batzuk Bikaineko autobusek 1.000 ikasle inguru eramaten eta ekartzen zituzten, baina urtetik urtera beherantz joan da erabiltzaile kopurua. Iaz 200 inguruk erabili zuten zerbitzua. "Lehen autobus asko ginen egunero ikasleak eramaten eta ekartzen



Orain dela urte batzuk Bikain-eko autobusek 1.000 ikasle inguru eramaten zituzten egunero Donostia eta Bilboko kanpusetara. Urtetik urtera erabiltzaile kopuruak behera egin du.

genituenak, ikasleak etxe ondoan jaso eta kanpusean lagatzen genituen, beraien fakturak ahalik eta gertuen, gainera".

Azkeneko urteetan bono-sistema izan dute Bikain-ekoek, ikasle askori ez zitzaizkion interesatzen urte osoa ordaintzea. Hala ere, gaur egun Bikainek ezin dio egoerari aurre egin, "sarritan autobusak hutsik bueltatzen dira, edo bospasei lagunekin eta horrela ezinezkoa da aurrera ja-

rraitzea", azaldu digu Fernandez-ek atsekabe handiarekin.

Hemendik aurrera Eibarko ikasleak lehenengo Ermura joan beharko dira, handik zuzenean Leioara joateko, edo, bestela, Eibartik Termibusera eta handik Leioara. Eta Elgoibarkoek oraindik zailagoa izango dute. "Egoera honekin ikasle asko galtzen irtengo dira, eta hori penagarria da", esan digu Mariok.

Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
 ☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

EIBAR
CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

1) Kardiologia	11) Barne Medikuntza
2) Zirugia	12) Radiologia
3) Dermatologia	13) Urologia
4) Dietetika / Nutrizioa	14) Traumatologia
5) Análisi Klinikoak	15) Koloproktologia
6) Ortodontzia	16) Erizaintza
7) Otorrinolaringologia	17) Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
8) Pediatria	18) Foto-depilazio
9) Psikiatria	Unitatea
10) Neurologia	

Isasi, 31 Egutegia 06.00-22.00
943 207 737

*Etorri!
 Zure etxian
 egongo zara!!*

Astelehenetik ostegunera
PIINTXO-POTEA!

KAFETEGIA OKINDEGIA
SUTLINDO

Azido hialuronikoko ile-tratamendu berriak

Khôl Estilistak

Estaziño, 4 943 254776

Mila esker!

Erosketa poltsak, motxilak, kamisetak, nintendoak, telebista, urdaiazpikoa, gailetak, kafea, txuletak eta arraina, edariak, boligrafoak, baloiak, erropa, tratamendu estetikoak, gasolina erosteko txekeak, ikuskizunetarako sarrerak, bazkariak, jokoak, diru-zorroak, etxerako apaingarriak... opari mordoak iritsi zen Arrate egunean kittobolan boletoak erosten ibili ziren askoren etxeetara.

“2 boleto mesedez!”, “urdaiazpikoa nahi dut!”, “nik telebista!”, “Eibarko bufada!”... Jendez inguratuta pasa genuen eguna kittobolan boletoak saltzen eta opariak banatzen ibili ginenok. Eta gusto-

ra egon ginen, gainera, zuen poza eta ilusio aurpegiak ikusita.

Behin eta berriro eskerrak eman nahi dizkizuegu guregana etorritako guztoiri. Oso garrantzitsua da zuen parte hartzea eta zuei guztiei esker posible da gure lanarekin aurrera jarraitzea: astero astero zuen buzoietan egotea eta Eibarren euskeraren normalizazioaren alde lan egiten jarraitzea, urtean zehar aurrera eramaten ditugun proiektu desberdinen bitartez. Bihotzez, mila esker guztioi. Ziur gaude datorren urtean, 2016ko Arrateetan, elkar ikusiko dugula. Zuek zarete tonbolako oparirik onena!!!



KITTONBOLIA

KITTO nbolia



Euskara Elkarte

*Arrate egunean euro baten truke opariarekin
etxera bueltatzeko aukera izan zenuten aurten
ere. Eskerrik asko parte hartu duzuen denda
eta enpresa guztiei!!!*

- + x – harategia
- ...eta kitto! Euskara Elkarte
- Aibe
- Akara
- Amaña Avia gasolindegia
- Ansa bitxitegia
- Arregi-Dominguez arraindegia
- Artola jatetxea
- Askasibar
- Aspe
- Astelena taberna
- Astigarraga
- Athletic Club
- Azitain erretegia
- Azitain-Avia gasolindegia
- Azpiri jostundegia
- Azpiri saneamenduak
- Baglietto
- BBVA
- Benicoba
- Blanca Ioradenda
- Burbujas y mas
- Capi
- Closet
- Coca Cola

- Dandara
- Depor taberna
- Dirdai bitxitegia
- Ditare
- Divina Valentina
- e&m argazkidenda
- Eguren elektrodomestikoak
- Eibar Eskubaloia
- Eibar Motor-Seat
- Eibar Rugby Taldea
- Eibarbus
- Eibarko Txirrindulari Elkarte
- Eibarko Udala-Kultura



- El Cantón de la Avenida



- El Corte Inglés



- Emankor



- Eroski Eibar hipermerkatua
- Errebal Kirolak
- Esther Galarza
- Farmalur
- Forchetta
- Ganbaran
- Garbibox
- Genoveva arraindegia
- Gerritek
- Gratzina
- Guby mutilak
- Guby neskak

Guztioi esker EUSKERARE

ESKERRIK ASKO parte hartu duzuen danori!

- Guillermo arraindegia
- Gurbil
- Hechizos
- Homme
- Hotel Unzaga Plaza
- Idoia Bergaretxe spa
- Ikusi-makusi
- Industrias G. Arizaga
- Industrias Mail
- Iñaki harategia
- Iratxe belardenda
- Irritsa



- Itxesi
- Izadi loradenda
- Izane
- Jauregi
- Jaz-Zubiaurre
- Jeronimo
- Kantabria jatetxea
- Kantoï gasolindegia
- Kerala

- Ketesa
- Kinkila
- Kokein
- Kontent
- Kultu taberna
- Laboral Kutxa
- Lakett
- Leder
- Lola's
- Lide
- Luis del Rey
- Mamacas
- Mara-mara
- Marian-Idoia spa
- Más que wapos
- Meka-Hotel
- Mertxe gazta eta txerrikiak
- Mugika harategia
- Natural
- Neure
- Nice Nice
- Oberena harategia
- Orbea
- Oroz Exclusivas S.L.

**OROZ
EXCLUSIVAS
S.L.**

- Otegui harategia
- Pirritx eta Porrotx



- Pitxiak
- Publi-resa
- Salaberria bitxitegia
- San Andres gozotegia
- S.D. Eibar
- Su Ta Gar
- Sutondo
- Tribeka
- Twins
- Txioka
- Txutxufletas
- Ulmar
- Umea
- Urdanibia
- Urkotronik
- Valenciaga
- Yraolagoitia
- Zubi-Gain
- Zurkulu

EN ALDE lanean dihardugu!!!

ARRATE EGUN BIRIBILLA



Arrateko Amari eskindutako eguna ezin biribillagua izan da aurten. Bezperatik hasitta, eguraldixa lagun euki genduan eta, eurixa botatzeko arriskurik ez egualako edo, gazte mordua animau ziran illuntzerako igotzen eta ez ziran gitxi izan gaupasa egin eta parrandan goizerarte ibilli ziranak. Jaixak Herrixak Herrixandakok eta txosnetakuak antolatuta, trikipoteuak, herri afarixak eta kontzertuak girotu eben zelaixa. Eta Kantabria jatetxian, barriz, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik egindako bertso afarixan batutakuak be ondo baiño hobeto pasau eben. Eta martitzenian, goizian goizetik zeru urdiña eta eguzkixa ikusitta, jaixa astebarruan izanda be jende mordua ibilli zan egun osuan. Eibartik kanpora biharrian ibillittako asko, gaiñera, biharretik urtetzera buelta bat egittera animau ziran. Eguna Eganen dantzaldixak agurtu eban. Eta domekan jaixa atzera be Arratera bueltatuko da, Kofradixa eta Basarritar Jubilaueen Eguna ospatuko da eta (programa osua agendan, 20. orrialdian dakazue).

argazkiak: LEIRE ITURBE



Arratsaldian jokaturako txapelketan 45 bolari izan ziran parte hartzen. Bittor Rodriguezek irabazi zeban, 5 txirlo botata, Josean Blancoren aurretik (4 txirlo).



...eta kitto! 15/IX/11 • 941 zkia.



Pozik dago Zaldibarkoa, baina hankak lurrean dituela. Eguaztenean, entrenamenduaren amaieran, izan ginen berarekin Arrasateko Atxabalpeko instalazioetan. Behin eta berriz azpimarratu zigun "bi jardunaldi besterik" ez direla jokatu eta lan asko dagoela egiteko.

Jose Luis Mendilibar Eibar FT-ko entrenatzailea: "Eibar 1. mailako talde bihurtzeko bidean dihardugu"

- **Espero zenuenarekin egin duzu topo Eibarrera bueltatzean?**

Bai, ez dut ezustekorik hartu. Aurretik ezagutzen garena esango nuke eta talde familiarra da niretzat Eibar FT. Jakina, 1. mailan dagoenez, profesionalagoa da eta diru gehiago du; horrek tribuna berria, zelai berriak... egiteko aukera ematen dio.

- **Aurretik egon zinanetik, orain dela 11 urte, zein aldatu da gehiago: kluba edo zu zeu?**

Ni ez naiz larregi aldatu: pertsonalitate bera dudala uste dut, tratuan ere antzera... 1. mailan jardun dudana arren, lehen bezala jarraitzen dut eta konforme nago horrela, jokalariekin ahal den hobeekin moldatuz eta entrenamenduetan sartuta. Eibar FT bai aldatu dela eta gaur egun 1. mailako hainbat taldeekin parekatuta dago.

- **Kanpoko hainbeste jokalaria ekarrita, ez da zailagoa izango zalegoa taldearekin identifikatzea?**

Segun eta nola! Zaletuek gehiago begiratzen diote kolorei eta, foballa ere globalizatu denez, gero eta normalago hartzen dira kanpoko jokalaria. Inglaterra, esaterako, atzeritar morda dituzte taldeetan, baina bertako foballa ez da aldatu: triki-mailurik eta halakorik onartzen ez dutenez, kanpotik datozenek ere bide beretik jotzen dute. Eibar FT-k ondo jokatzen badu eta

partiduak irabazi, zaletua taldearekin identifikatuko da.

- **Zein da zure helburua hasi berri den denboraldirako? Zerekin konformatuko zinateke?**

Mailari eustea dugu oinarritzko helburutzat eta, borroka horretan, beste sei edo zortzi taldeekin izango gara lehian. Bestalde, konformatu baino gehiago zerbait eta aurrerago sailkatzea hartu behar dugu erronkatzat.

- **Zein zailtasun ditu klubak 1. mailan jarduteko? Eta, borroka horretarako, zein balore ditu?**


Zailtasunak, egia esateko, gero eta gutxiago dira. Ekonomikoki, esaterako, zorrik ez izatea abantaila da beste askori begira. Oraindik lortu ez duena izena da, jokalaria-eta ekartzeko merituak egin behar direlako. Baina bide horretan gaude.

- **Jokalariai aurrendenboraldian hain berandu ekarrita, ez da ezustekoa liga hasiera hau?**

Bai, kontuan izanda gainera aurrendenboraldian ez genituela partidu onak egin, ez osorik behintzat. Zeozer ikusi bada jokatutako bi partiduetan jokalaria onak ditugula izan da, zelaian ia ezer esan barik elkar ulertzeko gai izan direlako; kasu askotan, gainera, elkarrekin entrenamendu gutxi batzuk egin ondoren.

- **Noiz gustatuko litzaizuke taldeak bere puntu gorenara lortzea?**

Ezin gara ibili taldea prestatzen Gabonetan edo liga amaie-



Mendilibar
Atxabalpeko
instalazioetan.

ran punta-puntan egon dadin. Zenbat eta indartsuago hasi hobeto -argi dago, sei puntu ditugu dagoeneko- eta gero horri eutsi behar diogu. Hamaikakoaren antzerako bat egonda ere, jakin behar dugu jokalaria horiei atseden ematen eta ordezkoiei onena ateratzen mailarik ez jaisteko.

- **Osatutako taldearekin konforme zaude? Nonbaiten esan duzu badirela ezagutzen ez zenituen jokalariai...**

Horrela da, etorri diren azken hirurak ez nituelako ezagutzen. Baina ezustea, izatekotan, azkenarekin hartu dut. Taka eta Verdi aspalditik jarraitzen zituzten zuzendaritza teknikotik eta Izet unean uneko aukera izan da. Hori bai, ditudan jokalariekin oso pozik nago une honetan.

- **Hala ere, 15 jokalaria taldera ekarrita denak ere ezingo dira titular izan. Izango da "frakasorik", horrela deitu dezakegunak...**

Jakina, hamabostak ez dira hamaikakoan sartuko. Hori aurretik jakinda ere, ditugun 23 jokalariek asko dute emateko, aukera handiak hazten joateko, eta titular jokatuko ez dutenen beharra ere izango dugu... Baditugu beste sei jokalaria beste talde batzuei lagata... eta hortik ere etekina atera behar dugu.

- **Zer da Eibar zuretzako, Athletic-era jauzia emateko aukera eman zizunetik?**

Orduan hasi nintzen Eibar ezagutzen, Zaldibarkoa izanda ere, ordura arte beti Durangaldera jotzen nuelako: bai ikasketetan eta baita ikasketak amaitu ondoren. Orain dela 11 urtetik hona, baina, honunza jotzen dut gehien: askotan etorri naiz urte hauetan, lagunekin ere bai, inguruko herrien artean giro gehien hemen nabaritu dudalako. Gauza onak besterik ezin ditut esan Eibarri buruz.

- **Ligari begira, zein ikusten duzu txapeladun? Zergatik?**

Bartzelona eta Real Madrilen artean egongo da: baliteke Barça apur bat gehiago ikustea, abenduan beste bi jokalaria berri ere izango dituelako. Atletico de Madrilak irabaztekoan, aipatutako biek egin beharko lukete kale.

- **Eta Athletic-a eta Realak zelan ikusten dituzu?**

Athletic-ak lehiaketa larregi ditu denetan ondo ibiltzeko; astero bi partidu jokatzea ez da gauza erraza. Realak, bestalde, oraindik ez dago argi zertara jokatzen duen. Jokalariek entrenatzailean sinesten dutenean hasiko da taldea bere maila ematen.



Xake Eskolaren matrikula zabalik

Klaseak barixakueta emango dira eta, aurreko ikasturtean bezala, bi talde osatuko: berriak (hastapena) 17.30etik 18.30era jardungo dute eta aurrez hasitakoak (jarraipena) 18.30etik 19.30era. Matrikula egiteko bi bide daude: e-postaz xakea@deporeibar.com helbidera mezua bidalita edo barixakueta Klub Deportiboaren bulegora joanda (18.30-20.30). Klaseen prezioa 30 eurokoa da hiruhilabeteko eta bazkide izan beharra dago. Klaseak urriaren 2an hasiko dira.

Bihar hasiko da foball zaletuen txapelketa

Aurreko urteetan moduan, hamalau talde jokatu dute atzo Isasi kaleko Kirolbet.es dendan aurkeztu zuten 2015-16 liga txapelketa. Lehen jardunaldiko neurketak honakoak izango dira: bihar 09.00etan, Azkena Dahi (iaz Azkena Kalton) - Kontent (iaz Koskor) eta Sporting Novak - Bar Areto; 10.30ean, Durango - Limpiezas Machado Tankemans (iaz Oishi Tankemans); eta 12.00etan, Esmorga - Garages Garcia.com. Eta etzi, domekan: 09.00etan, Alkideba - Bar Txoko; 10.30ean, Fontaneria Mujika - Ipur Sagardotegia; eta 12.00etan, EzDok (iaz EzDok Deika) - Slow Xok (iaz Caserio Slow Xok).



Hamalau talde hartuko dute parte txapelketa aurten ere.



Pello Osoro nagusi Sestaoko II. Triatloian

Saltoki Trikideak taldeko Eibarko ordezkaria nagusitu zen domekan jokaturako Euskal Herriko zirkuitoko hamabigarren proba puntuagarrian. Osoro ordubete, 49 minutu eta 26 segundo behar izan zituen proba egiteko eta minutu eta erdi atera zion Triatlon Santander taldeko Gorka Bizcarrari. Emakumezkoetan, bestalde, Ibone Sanchez laudiotarra izan zen onena (2:03:10).

Judo Klub Kalamua indartsu hasi da

Arrateak pasata hasi zituzten denboraldi berrirako klaseak Kalamuan, Manu Agirre eta Julio Gallegoren ardurapean. Benjaminek astelehen eta eguazteten jardungo dute (17.30-18.30), alebinek martitzen eta eguazteten (17.30-18.30) eta helduek astelehen eta eguazteten (19.00-21.00) eta barixakueta (18.00-20.30). Bestalde, hilaren 26an Eibar Hiriko Espainiako I. Jiu Jitsu Kopa jokatu da gure herrian borroka eta ne-waza modalitateetan. Ipuru kiroldegian goizeko 10.00etan (borroka) eta arratsaldeko 16.00etan (ne-waza) jokatu dira kanporaketak eta finalak. Izena Kalamuan eman daiteke hilaren 18ra arte (judo_kalamua@hotmail.com eta 686-944558).



Teknikari berriak Eibar Rugby Taldean

Talde tekniko osatuagoa izango du Eibar Rugby Taldeak denboraldi berrirako. Peio Urkidi seniorren entrenatzaileak eta Gorka Nuñez prestatzaile fisikoak zuzentzen duten teknikarien taldeak Gaston Ibarburuk eta Cristina Guntinek osatutako bikotea izango dute lagun oraingoan: Ibarburuk Uruguayko selekzio partaide izan da, Europako hainbat taldetan jokatzeari aparte (Saint Jean de Luz eta Gernika tartean); Guntin, bestalde, Pozuelon eta Madrilgo Metropolitanon ibili da eta orain Eibarko emakumezkoen taldea sendotzera dator. Aurrendenboraldiko lehen partiduan eibartarrek Durangorekin galdu zuten eta Julen Zamakola eibartarrak, bestalde, Euskarian sekun jokatu du Uruguayren aurka.



plancha LARRUGA

ORIGINALA eta Eibarren

PLANTXA-LAN
ZERBITZU AZKARRA



628 092 147
943 207 829
608 055 302
info@planchalarruga.com

Sostoatarren, 2
inoiz IKUSI GABEKOA!!!





Alegria, Lejardi eta Txurruka aurkezpen ekitaldian.


JSM beka aurkeztu dute

Aurreko astean aurkeztu zuten Juan San Martin Bekaren XII. deialdia Portalean Patxi Lejardi Euskara batzordeburuak, Iñaki Alegria UEUren zuzendariak eta Junkal Txurruka udaleko euskara saileko zuzendariak. Bekaren deialdi honetarako aukeratu duten ikerketa-gaia etnologia da eta, interesa dutenek urriaren 9ra arte izango dute eskaerak aurkezteko aukera, Pegoran (Herriarren Zerbitzura-ko Bulegoan). Eskaerak jasotzeko epea itxi eta gero, epe-barruan aur-

keztutako eskaerak aztertuko dira eta, horien artean beka jasotzeko egokiena aukeratu ondoren, bekaren irabazlearen berri abenduaren hasieran emango dutela aurreratu dute. Eibar-ko udalak UEUrekin elkarlanean ematen duen beka eskuratzen duenak 9.000 euro jasoko ditu bere ikerketa lana euskeraz egiteko, eta hemezortzi hilabeteko tartean amaitu beharko du. Informazio gehiagorako Pegoran galdetu daiteke edo interneten, www.eibar.eus webgunean begiratu.

Coliseoa kurtsoari ekiteko prest

Udako etenaldia amaitu eta ikasturte berriari ekiteko ordua ailegatu zaio Coliseo antzokiari. Asteburu honetatik aurrera zine-eskaintzak ohiko martxari helduko dio eta, beraz, film ezberdinak proiektatuko dituzte asteburuoro. Hortik kanpora, bestelako ikuskizunak hartuko ditu antzokiak irailean: hilak 19an, 20.30ean, "Sur, la luna al revés", Argentinako tangoan oinarritutako dantza eta musika ikuskizuna eskainiko dute Fernando Valsegak eta Exilio New Tangok (8 euro). Eta hilak 25ean, berriz, "De cuerpo presente" umorez gainezka egiten duen antzezlan ailegatuko da, Glu Glu Producciones taldearen eskutik.



Argazkigintza digitalean murgiltzen

Kultura sailak "Argazkigintza digitala: Lehen urratsak" izenburuko ikastaroa antolatu du argazkigintza digitalaren oinarriko kontzeptuak ezagutzeko interesa dutenentzat. Antolatzailen asmoa "ikastaroan parte hartzen dutenek argazkigintza digitala modu erosoan eta ludikoan ezagutzea eta oinarriko kontzeptu eta teknikak ikastea" da eta hamasei urtetik gorakoek izango dute izena emateko aukera, irailaren 21etik urriaren 2ra bitartean (biak barne) Pegorara joan eta eskaera aurkeztuta.




Klaseak Jose Valderrey, Klub Deportiboko argazkilariak emango ditu, Portalean (argazkigintzagelan) urriko eta azaroko astelehen eta eguaztetenetan, 19.00etatik 21.30etara. Ikastaroaren prezioa 47 eurokoa da Eibarren errolatuta daudenentzat (79 eurokoa besteentzat). Bestalde, izena ematen dutenen kopuruak ezarritako gehieneko ikasle-kopurua gaindituz gero, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo dutela argitu dute antolatzaileek.

Mendizaletasun-graduondo berria

Udako Euskal Unibertsitateak, Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean lau graduondoko sustatuko ditu hasi berri den ikasturtean: "Itzulpengintza eta teknologia", "Hondakinen kudeaketa eta tratamendua", "Agroekologia: trantsiziorako gure bidea lantzen" eta kurtso honetarako eskaintzaren barruan nobedadea den "Mendizaletasuna: mendi jardueren ikasketak" izenburukoak.


Eskaintza aurkezteko ekitaldian azaldu zutenek, "master ez diren unibertsitate mailako graduondoko tituluak ez dira oso ezagunak, baina oso ezaugarri interesgarriak dituzte: unibertsitate mailakoak dira, baina lanbidetik gertu daude eta esperientzia handiko profesionalak ere har dezakete parte, lanarekin bateratzeko modu-



koak direlako. Egunean bizpahiru ordu eskaini behar zaizkie eta, gainera, komunikazio teknologiei esker neurri handi batean etxetik jarrai daitezke". Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko www.ueu.eus webgunean sartu daiteke. Matrikulazioa irailaren 17an itxiko dute, baina data hori igarota ere matrikulatzeko aukera egongo da.

Iraileko argazki erakusketak

Eibarko Klub Deportiboko Argazki Taldeak, urte oso-ko martxari jarraituta, irailerako argazki erakusketak zabaldu ditu herriko taberna hauetan: El Ambigú tabernan Fotospai, Bartzelonako elkartearen "Diálogo entre luz y cuerpo" izenburukoa ikus daiteke; Portalea tabernan, berriz, Pedro Arriolaren "Jordania" izeneko bilduma; Klub Deportiboaren tabernan, Extremadurako Argazkilaritza Elkartearen erakusketan, elkarte-ko hainbat kideren lanak daude ikusgai; eta Ez Dok tabernan, Iñaki Campos Deporreko argazki taldeko kidearen lehen erakusketan, munduan zehar egin diren musika jaialdietan hartutako hainbat irudi ikusteko aukera dago. Erakusketa guztiak irailaren 30era arte egongo dira martxan.



laburrak

POESIA TAILERRA

Aste honetan, eguaztenean ekin zion ikasturteari Maite Lorenzok gidatzen duen poesia tailerrak, Bittor Sarasketa kalean dagoen Itzamna akademian. Aurreko kurtsuan egindakoaren bidetik, aurrerantzean astero batuko dira poesia tailerreko partaideak, olerkiak idatzita eta irakurrita elkarrekin poesiaz gozatzeko.



UMEENDAKO TAILERRAK

Uda sasoirako prestatu zuten programari jarraituz, bihar umeendako animazio eta magia ikuskizuna eskainiko dute Aeiou taldekoek El Corte Ingles-eko terrazan, 18.00etan hasita (sarrera doan). Zapatuetarako jarduerak irailaren amaierara arte jarraituko dute: hilaren 19an VI. Playback lehiaketa egingo dute eta 26an, berriz, saio bikoitza prestatu dute. Antolatzaileek azaldu dutenez, euria egingo balu jarduerak denda barruan, ekitaldi-aretoan egingo dira, terrazan egin beharrean.

Bertso saio musikatua

Bertso saio musikatua

Irailak 25, ostirala
22:30ean

Eibarren,
Txaltxa-zelaiko auditorioan

Bertsolariak:

ALAIA MARTIN
BEÑAT GAZTELUMENDI
UXUE ALBERDI
ODEI BARROSO



Musikariak:
GARI OTAMENDI
IGOR ARRUABARRENA

Gai-jartzailea: IKER IRIARTE

Antolatzailea:

hankamotxak
bertso eskola

Azken urteetan egindakoaren bidetik, Hankamotxak bertso eskolakoek aurten ere bertso saio musikatua antolatu dute ikasturteari ekiteko. Saioa irailaren 25ean (barixakuan) izango da, 22.30etik aurrera Txaltxa Zelaiko auditorioan (sarrera doan). Beñat Gaztelumendi, Alaia Martin, Odei Barroso eta Uxue Alberdi bertsolariekin batera, Gari Otamendik (biolinarekin) eta Igor Arruabarrenak (gitararekin) jardungo dute eta gai-jartzailea Iker Iriarte izango da.





Funeraria-Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

2015/16 EUSKARA IKASTAROAK

matrikula zabalik

aek

EUSKALDUNTZE OROKORRA
(AURREZ AURREKOA EDO AUTOIKASKUNTZA)

XEDE BEREZIKO IKASTAROAK
(AURREZ AURREKOA)

- 1. / 2. / 3. (EGA) eta 4. mailak
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, Irale, Osakidetza

ON LINE

- H-100 (Euskaltzaindiaren arauak)
- H-501 (Testugintza)
- 3. eta 4. mailak
- EGA lantzeko zerbitzu osagarriak
- Administrazio idazkiak
- Eskatzailearen neurriko ikastaroen diseinua
- Glotodidaktika

eibar@aek.eus

Udalaren laguntza
BEKA SISTEMA

Sostoa 1, 1. solairua Tfnoa: 943 201 379

BARIXAKUA 11

ATE IREKIAK

17.00 eta 18.00. Nenoos metodoa ezagutzeko ume-
endako (3/13 urte) doako
tailerra. Nenoos-en (Juan
Gisasola, 16an).

ZAPATUA 12

OINAREN UNITATEA

09.00-14.00. Doaneko
oinkadaren azterketa.
Policlinica Gipuzkoaren
eskutik. Untzagan.

ATE IREKIAK

11.00 eta 12.00. Nenoos
metodoa ezagutzeko
umeendako (3/13 urte)
doako tailerra. Nenoos-en
(Juan Gisasola, 16an).

BARRENAKO JAIK

12.30. Paella lehiaketaren
hasiera.

14.30. Sari-banaketa
eta herri-bazkaria.

17.00. Mus-txapelketa
azkarra.

19.00. Patata-tortilla
lehiaketaren hasiera.

20.00.- Herri-afarimerienda.
Azitaingo parkean.

ATE IREKIAK

14.00. Urbat waterpolo
taldea ezagutzeko ate
irekien jardunaldia,
2005/2006/2007 urteetan
jaiotakoentzat. Orbea
kiroldegiko igerilekuan.

BIEN APARECIDA JAIK

14.30. Paella-jana.
Untzagan.

19.30. Kalejira: Kaleetan
Kantuz eta Eibarko
Trikilari Gazteak.

21.30. "La flor y los
romeros" taldearen
emanaldia. Kantabriako
Etxearen eskutik.

UMEENDAKO IKUSKIZUNA

18.00. Umeendako
animazioa eta magia,
Aeiou-ren eskutik. Sarrera
doan. El Corte Ingleseko
terrazan (euria egingo balu,
ekitaldi aretoan).

DOMEKA 13

KOFRADIA ETA BASERRITAR JUBILATUEN EGUNA

10.30. Simon
Aldazabal XX.
Antxitxiketaldia. Eibarko
Klub Deportibotik irten
eta Arrateraino (Orbeo
bidetik).

11.00. Meza Nagusia,
bertsolariekin eta Arrateko
ezpata-dantzariekin.
Ondoren, prozesioa,
Usartza Txistulari Bandak
lagunduta.

12.00. Paella lehiaketa.

14.00. Paella lehiaketaren
sari banaketa.

14.30. Jubilatuentzako
bazkaria Kantabria
jatetxean. Baserritar
nagusiei opariak banatzea.
Trikilari eta bertsolarien
saioa.

17.30. Idi probak.
Arraten.

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Lurraldebus.....	943 00 01 17
Pesa.....	900 10 14 00
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63

erakusketak


✓ Irailaren 30era arte

FOTOSPAI (Bartzelona) elkartearen "Dialogo entre luz y cuerpo" argazki erakusketa.
El Ambigu tabernan.

PEDRO ARRIOLAREN "Jordania" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

EXTREMADURAKO ARGAZKILARITZA ELKARTEKOEN erakusketa. *Klub Deportiboan.*

IÑAKI CAMPOSEN argazki erakusketa. *Ez Dok tabernan.*



SUDOKUA

			1			5
5		2				7 6
		6	4			
4		5 7				6
		3 4	1 7			
	8		9 2			4
			5	2		
9 6				5		8
1			8			

1 7 9	4 5 3	2 8 6
6 3 2	9 7 8	1 4 5
8 5 4	6 1 2	3 9 7
2 9 7	5 3 6	8 1 4
3 1 5	2 8 4	7 6 9
4 8 6	7 9 1	5 3 2
9 4 3	8 2 7	6 5 1
7 6 1	3 4 5	9 2 8
5 2 8	1 6 9	4 7 3

AURREKOEN EMAITZA

farmaziak

- ✓ **barixakua 11**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **zapateria 12**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **domeka 13**
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **astelehena 14**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **martitzena 15**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)
- ✓ **eguztina 16**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **eguna 17**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **barixakua 18**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

GAUEZ BETI
Elorza (J. Gisasola, 18)

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, MARTA, astelehenian 9 urte bete zenduaz-en-eta. 9 muxu potolo famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JUNE!, juan dan abuztuaren 4an bederatz-i urte egin zenduaz-en-eta. Muxu potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IRATI, abuztuaren 30ian bost urte bete zenduaz-en-eta. Muxu bat famelixa guztiaren eta, batez be, lbaitxoren partez.



Zorionak, TELMO, mutil haundi, gaur zazpi urte betetzen dozuz-eta. Patxo potolua etxekuen eta, batez be, Markoren partez.



Zorionak, IXONE Ortiz de Zarate Torre, gure pitxintxo, astelehenian 3 urte bete zenduaz-en-eta. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, UNAX, abuztuaren 24an bi urtetxo bete zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Jakesen partez.



Ongi etorri, ENEKO Galarraga Osa! Eta zorionak gurasueri, famelixa guztiaren partez.



Ongi etorri, JARE, uztaillaren 15etik gureartian zagozelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, EKAIN, atzo urtetxua egin zendualako, eta aitxitxa ROMAN, domekan urtiak egingo dozuzelako eta onena zaralako. Muxu potolo bat etxekuen partez.



Zorionak, JOKIN, Arrate egunian lau urte egin zenduazelako. Etxekuen partez.



Ongi etorri, KOLDO Peña Eguren (uztaillaren 27xan jaixo zan), eta zorionak IKER, bixar hiru urte beteko dozuz-eta. Laztan haundi bana famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANE (11) eta ENEKO (9), abuztuaren urtiak egin zenduz-en-eta. Segi holan! Aitta eta amaren partez.



Zorionak, LOREA, astelehenian hiru urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.

hildakoak

- Jose Luis Artetxe Mitxelena. 65 urte. 2015-IX-2.
- Begoña Larrinaga Lejarraga. 78 urte. 2015-IX-3.
- Ana M^a Zuloaga Errasti. 76 urte. 2015-IX-3.
- Angel Estandia Setien. 81 urte. 2015-IX-5.
- Jon Pascual Gisasola. 52 urte. 2015-IX-7.
- Jose M^a Diaz Ortiz de Landaluze. 74 urte. 2015-IX-7.
- Maite De Luis Ferreras. 59 urte. 2015-IX-7.
- Catalina Etxebarria Alvarez. 89 urte. 2015-IX-8.

jaiotakoak

- Jara Saez Sanchez. 2015-VIII-29.
- Nora Azkarate Valles. 2015-VIII-30.
- Libe Alberdi Prieto. 2015-IX-1.
- Elene Sanchez Diez. 2015-IX-2.
- Imran Bentaher. 2015-IX-3.
- Yeray Beltran Robledo. 2015-IX-3.
- Naroa Navarro Zamorano. 2015-IX-3.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)
12an: 17.00, 19.45, 22.30
13an: 17.00, 20.00
14an: 20.30

"Anacleto. Agente Secreto"
 Zuzendaria: Javier Ruiz




(2 ARETOAN)
12an: 17.00, 19.45, 22.30
13an: 17.00, 20.00
14an: 20.30

"Ted 2"
 Zuzendaria: Seth McFarlane



(ANTZOKIAN)
12an: 19.45, 22.30
13an: 20.00
14an: 20.30

"ma ma"
 Zuzendaria: Julio Medem



(ANTZOKIAN)
12an: 17.00
13an: 17.00

"Atrapa la bandera"
 Zuzendaria: Enrique Gato



1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Soroluzen. 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. 60 m². Berriztua, argitsu eta dena kanpora begira. Berogailu urdinarekin 59.000 euro. Tel. 656-758793.
– Etxebizitza salgai, bizitzera sartzeko moduan. 3 logela, egongela, 2 komun, sukalde berria, 5 horma-armairu eta trasteroa. Igogailua. Argitsua. 130 m. erabilgarri.. Erdikaldean. Tel. 626-203838 eta 699-495249

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 608-588444.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibar edo inguruan. 500 eurotik behera. Tel. 632-337083.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 2 logelakoa, jantzita eta berogailuarekin. 450 euro ordaintzeko prest. Tel. 603-136727.
– Mutil arduratsuak gela edo pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 686-257718.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Bi Yamaha Virago motor salgai. 1.100 cc. Biak 2.500 eurotan. Tel. 615-729400. Igor.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Gazteentzako lokala alokagai Jardinieta, 34an. 132 m². Dena kanpora begira. Berriztua. Legezatzte proiektuarekin. Etxerik ez inguruan. Tel. 656-756485.
– Martxan dagoen ileapaindegia alokatzen da Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketako egiteko (elkarteak, pegorak)... Tel. 631-098995.
– Neska eskaintzen da pegorak, soziedadek eta bulegoak garbitzeko. Tel. 638-421827.
– Neska euskalduna eskaintzen da umeak (baita hauei etxeko lanak egiten laguntzeko) edo behar bereziak dituzten pertsonak zaintzeko. Tel. 688-639371.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko Eibar, Ermua eta Elgoibarren. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 639-523390.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta orduka garbiketako lanak egiteko. Erreferentziak. Tel. 672-442318.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketako egiteko. Tel. 637-004773.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketako egiteko. Tel. 638-338816.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 622-225561.
– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 631-278618.
– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 646-778839.
– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 629-869572.
– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko, nagusiak zaintzeko eta tanatorioetan makilatze. Tel. 647-898016.
– Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 660-213652.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 662-252150.
– Emakume euskalduna eskaintzen da gaez Mendaroko ospitalean edota etxean gaixoak zaintzeko. Tel. 669-179522.
– Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-124942.
– Neska eskaintzen da gaez lan egiteko. Tel. 631-139915.
– Emakumea eskaintzen da gaez lan egiteko. Tel. 602-149777.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-879419.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta orduka garbiketako lanak egiteko. Tel. 652-869167.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia. Tel. 632-564679.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Edozein ordutegitan. Tel. 655-677035.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko etxean edo ospitalean eta pegorak garbitzeko. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 631-343232.
– Emakumea eskaintzen da garbiketako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Edozein ordutegitan. Tel. 633-357538.
– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Edozein ordutegitan. Tel. 626-722291.
– Emakumea eskaintzen da orduka etxekolanak egiteko. Tel. 632-337085.
– Emakumea eskaintzen da edozein garbiketako motarako. Esperientzia. Tel. 639-423493.
– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 602-891885.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketako egiteko. Tel. 622-225551.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketako egiteko. Tel. 646-778839.
– Gizona eskaintzen da iturgin zein elektrizitate lanetan jarduteko. Tel. 632-695273.
– Neska eskaintzen da pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
– Neska euskalduna eskaintzen da goizez (10.00ak arte) umeak zaindu eta garbiketako egiteko. Tel. 610-980628. Irati.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketako egiteko. Tel. 638-338816.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 617-966358.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutegitan. Tel. 653-156403.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutegitan. Tel. 632-879862.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 674-342769.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketako egiteko. Tel. 632-426847.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gaez ere. Tel. 631-417995.
– Emakumea eskaintzen da arratsaldeaz nagusiak zaintzeko. Tel. 658-458061.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 655-231059.

4.2. Langile bila

– Emakume euskalduna behar da arratsaldetan umea zaintzeko. Tel. 675-708552.
– Emakume euskalduna behar da umea zaintzeko. Curriculuma bidali argazkiarekin: igreielo@gmail.com
– Neska euskalduna behar da astegunetan eta arratsaldetaz neskatu bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 650-981443.
– Emakume euskalduna behar da goizez umeak zaintzeko. Tel. 637-942140.
– Kamarera/o behar da Eibarko pub batean asteburuetan lan egiteko. tre@euskalnet.net
– Kamarera/o behar da Eibarko taberna bateko barra eta jantokirako. Ezinbestekoa eskarmentua izatea. Tel. 638-480460.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Klase partikularrak ematen ditut. LH eta DBHko edozein ikasgai. Tel. 699-597315.
– Fisika, Matematikak eta Kimikako klase partikularrak eta umeentzako irakaskuntza teknikak ematen ditut. Gehienez lau laguneko taldeak. Tel. 615-705945. Iratxe.
– DBH eta Batxilergoko Matematikak etaberritako klaseak ematen dira. 1 eta 3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.
– Euskarazko klase partikularrak ematen ditut maila guztietan (EGA azterketa, perfilak etabar prestatzeko). Baita LH eta DBHko gai guztiak ere. Esperientzia. Tel. 645-005943.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– LG Direct Drive erroga garbigailua salgai. 7 kiloko kargakoa. 15 hilabete ditu. 370 euro. Tel. 628-662998.
– DBH 3. mailako liburuak salgai. Tel. 617-467779.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Orain dela pare bat aste haize bolada batek Eibar FT-ren kamiseta (4-6 neurrikoa) eraman zidan. Aurkitu duenak deitu. Tel. 660-840246.
– Uztailean "ninfá" txoriak ihes egin zidan. Katakua txikia da, krestarekin, grisa eta aurpegiaren biribil laranja dauka. Hitz egin eta txistua egiten du. Tel. 619-867218.

Adimena era dibertigarri eta eraginkorren garatzeko heziketa metodo integrala eskaintzen duen Nenoos zentrua ekainean zabaldu zuen Patricia Vitores eibartarrak Juan Gisasola kalean, Ane Gonzalez zentroko koordinatzailea izanik, aurretik martxan dauden Nenoos zentruetako esperientziatik abiatuta, umeek gaitasun berriak bereganatzen eta adimena garatzen laguntzen duen programa berritzaileak eskaintzeko.



nennoos eibar

Juan Gisasola, 16
Telefona 688 802 705

nennoos
promoting talent



www.nenoos.es  eibar@nennoos.es

ADIMENA

ERA DIBERTIGARRI

ETA ERAGINKORREAN

GARATZEKO

HEZIKETA

METODO

INTEGRALA



PATRICIA VITORES eta ANE GONZALEZ (NENNOOS):



ZERTAN DATZA NENNOOS HEZIKETA SISTEMA INTEGRALA?

Galiziako psikologo eta psikopedagogo talde batek garatu du Nenoos metodologia, munduan zehar esperientzia ezberdinak ezagutzen ibili eta gero. Adimena era dibertigarri batean umeek jolasten duten bitartean garatzeko metodoa da. Heziketa integrala garatzera bideratuta dago eta horretarako hiru dimentsio, "Mind, Body & Emotions" (M.B.E), hau da, burua, gorputza eta emozioak lantzen dira, harmonia sortuta.

ZER ESKAINTZEN DUZUE?

Nenoos 360° izenekoa 3-13 urte bitarteko umeen gaitasun zehatzak eta garapen pertsonala lantzen bideratutako programa da eta hiru taldetan eskaintzen dugu: 3-5 urte bitartekoentzat Mini izenekoa ematen dugu, astean ordubeteko klasea; 5-8 urte bitartekoentzat Junior izenekoa dago; eta 8-13 bitartekoentzat, berriz, Master izenekoa. Haue-tan astean ordu biko klaseak izaten dira eta jardueretan Soroban Abakoa eta joko didaktikoak erabiltzen ditugu. Abako-

arekin memorizatze eta kontzentratze ahalmena hobetzen dute eta, era berean, gaitasun matematikoa ere hobetzen da. Eta joko didaktikoak balio pedagogiko handikoak dira, ikasitakoa era ludiko batean lantzeko: Tangram (irudiak eta siluetak sortzeko), Lupo (eraikuntza sistema), kartak, blokeak... Haste-ko, 15 minutuz psikomotritzitatea lantzen dugu, yoga eta

gorputza (BODY) erlajatzeko ariketekin eta, ondoren, abakoarekin eta joko pedagogikoekin jarraitzen dugu (MIND). Gaur egun hain garrantzitsua den adimen emozionala eta trebetasun sozialak lantzen ditugu (EMOTION). Ariketa bakoitza gehienez 5 minutukoa da, umeen arreta erakartzeko. Bestalde, gure eskaintza eskolatik kanpoko ekinga modukoa izan arren,

nahi izanez gero ikastetxeetan emateko aukera ere badago.

ZEINTZUK DIRA METODOAREN ONURA NAGUSIAK?

Umeen arreta eta memoria hobetzen dira, kontzentrazioa eta aditze maila handitu, eta gaitasun matematikoak gora egiten du. Gainera, autoestima eta motibazioa handitzen ditu eta adimena eta gaitasun sozialak sustatzen. Gaitasun hauen hobetzearekin eskola errendimenduak hobera egiten du. NENNOOS filosofia "jostaluz ikasi" da.

IRAILAN ETA URRIAN DOAKO TAILERRAK ESKAINIKO DITUZUE, EZTA?

NENNOOS 360° ezagutzera emateko 45 minutuko doako tailerrak izango dira, 3-13 urtera bitartekoentzat: irailaren 18an eta 25ean (ordutegi bi aukeran, 17.00etan eta 18.00etan); eta irailaren 19an eta urriaren 3an (11.00etan eta 12.00etan). Lekuak mugatuak dira eta izena emateko 688 802 705 telefono zenbakira deitu edo eibar@nennoos.es helbidera idatzi daiteke.





UGAN KLUB

F. Calbetón, 21 EIBAR

943 82 04 52

www.uganklub.net

uganklub@gmail.com



Instalazioak nahi duzunean eta nahi bezain beste erabiltzeko aukera



Aholkularitza fisikorako zerbitzua



*Kirola egiten
hasi nahi
baduzu
zatoz **UGAN**
Klubera*

FITNESS, CROSSFIT, SPINNING ETA BIDEO-SPINNING, AEROBIC, GAP, AQUATONIC, PILATES, BOSU, ZUNBA, BOXING, HIPOPRESIBOAK ...

IGERILEKUA ETA SAUNA BARNE

50 €-tik aurrera

UR JARDUERAK

4 hilabetetik
6 urte bitartekoentzat
igeriketa
(ur tenperatura
22,8°C)

**50 €
hilero**



*"Kirola eta
Osasuna
Profesionalen
Eskutik"*

"PERSONAL TRAINER" ZERBITZUA